

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas

2022
udaleku irekiak

Udajolas, Usurbilen errolatutako **4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko** haur eta gaztetxoei zuzendutako euskarazko Udalekuak dira. Uztailaren 4an hasi eta 29an amaituko da, eta astelehenetik-ostiralera 9:30-13:30ko ordutegia izango du.

Udajolasen helburua Usurbilgo haurrei zein gazteei euskarazko aisialdi eskaintza egokia (hezitzailea eta baloreetan oinarritua) bermatzea da, gure hizkuntza den euskararen normalizazioa bultzatzeko.

Izena emateko epea: apirilak 25etik, maiatzak 5era (biak barne) izango da

Izen emateko lotura: <https://forms.gle/DtCFxw5e4BZkT1Jk6> (QR kodea)

Kuota: 86,28€ (*) Familia Ugaria: 70,04€.

(*) Errentaren arabera hobariak aplikatuko dira, beti ere, aurrez udalak onartutako ziurtagiria aurkeztuta

Ordainketa Laboral Kutxako kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da
UDAJOLAS eta **HAURREN IZEN -ABIZENAK** adieraztea.

ES28 3035 0140 34 1400025811 (Usurbilgo Udaleko kontua)

Gehienezko plaza-kopurua 200 umekoa izango da.

Izena ematerakoan bidali (elkarte@noaueus helbidera) beharrezko dokumentua:

- Ordainketa agiria
- Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia
- Familia ugarien kasuan, Familia Ugarien txartela edo Familia Liburuaren kopia.
- Hobarien kasuan, udalak aurrez emandako ziurtagiria.

Oharrak:

- Maiatzak 5 da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko.
- Informazio gehiago elkarte@noaueus helbidean edo 688807336 telefonoan
- Guraso-bilera, ekainaren 21ean (asteartea) izango da Sutegiko auditoriumean, arratsaldeko 17:00etan.

